

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

6/2020 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 21ekoa, Covid-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarriei buruzkoa.

Covid-19ak osasun publikoaren arloan eragin duen eta Osasunaren Mundu Erakundeak pandemiatzat jo duen larrialdi egoera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak Estatuko lurralde osoan deklaraturako alarma egoera gertatu direnetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat izaeratako neurriak onartu eta hartu ditu, osasun larrialdiak eragindako ondorio astunak arintzeko asmoz.

Haien artean nabarmentzekoak dira zerga arloko neurriak, betiere Euskadiko Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunaren Legeak lurralde historikoei esleitutako eskumenen arabera hartutakoak.

Hori horrela, bost foru dekretu-arau eta hainbat foru agindu bideratu ditu Ogasun eta Finantza Departamentuak.

Foru dekretu-arau honetan, lau neurri gehigarri ezartzen dira, zeinen bidez jarraipena eman ahal zaien Covid-19aren ondorioz lurralde erkidean onartutako azken neurrietatik eratorri diren zerga aldaketei.

Lehen neurriari esker, 2020ko azaroaren 25era arte aurkeztu ahal izango dira sozietateen gaineko zergaren aitortpen osagarriak edo autoliquidazio berriak, urteko kontuak Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikuluan jasotako epean onartu direnean. Artikulu horri jarraituz, zuzenbide pribatuko pertsona juridikoen urteko kontuak prestatu, ziurtatu eta onartzeko ezohiko epeak jartzen dira.

Aukera horrek ez du inola ere ekarri behar bigarren autoliquidazioek preklusio ondorioak izatea, eta zerga erabat egiaztatuta ahal izango da.

Bigarren neurriaren helburua da luzamenduen formalizazio eskriturak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuestea honako luzamenduak direnean: Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuaren 13.3 artikulukoak; Covid-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloko premiazko neurri osagarriei buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-Dekretuaren 24.2 artikulukoak; 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-Dekretuaren 3tik 9ra arteko artikulukoak; eta Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartutako esparru akordio sektorialen babesean emandako luzamendu konbentzionalak, maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusiak.

Salbuespen hori foru araudian sartu behar da, horrelako eragiketegi dagokienez aurretik hartutako neurriekin bat eginda.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral-Norma 6/2020, de 21 de julio, sobre medidas tributarias adicionales tras la emergencia sanitaria del Covid-19.

Desde que se produjo la situación de emergencia de salud pública ocasionada por el Covid-19, declarada como pandemia internacional por parte de la Organización Mundial de la Salud, y del estado de alarma declarado en todo el territorio del Estado por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido aprobando y adoptando diversas medidas de diferente naturaleza, cuyo propósito ha sido paliar las graves consecuencias ocasionadas por la emergencia sanitaria.

Entre las diferentes medidas cabe destacar las adoptadas en el ámbito tributario, en virtud de las competencias atribuidas a los territorios históricos por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley del Concierto Económico.

Así, cabe enumerar hasta cinco decretos forales-norma y diversas órdenes forales dictadas desde el ámbito del Departamento de Hacienda y Finanzas.

El presente decreto foral-norma establece cuatro medidas adicionales, que permiten dar continuación a las modificaciones tributarias surgidas de las últimas medidas aprobadas en territorio común como consecuencia del Covid-19.

La primera de las medidas posibilita la presentación hasta el 25 de noviembre de 2020 de declaraciones complementarias o nuevas autoliquidaciones del impuesto sobre sociedades cuando las cuentas anuales hayan sido aprobadas en el plazo previsto en el artículo 40 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19, el cual establece plazos extraordinarios de formulación, verificación y aprobación de las cuentas anuales de las personas jurídicas de derecho privado.

Esta posibilidad en ningún caso debe suponer que las segundas autoliquidaciones tengan efectos preclusivos, pudiendo el impuesto ser objeto de comprobación plena.

La segunda de las medidas, contempla una exención en el impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados aplicable a las escrituras de formalización de las moratorias previstas en: el artículo 13.3 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19; el artículo 24.2 del Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al Covid-19; los artículos 3 a 9 del Real Decreto-Ley 25/2020, de 3 de julio, de 2020; así como para las moratorias convencionales concedidas al amparo de Acuerdos marco sectoriales adoptados como consecuencia de la crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19 previstas en el artículo 7 del Real Decreto-ley 19/2020, de 26 de mayo.

Dicha exención ha de ser incorporada a la normativa foral en coherencia con las medidas anteriormente adoptadas con respecto a este tipo de operaciones.

Hirugarren neurriak, bestetik, kontuan hartzen ditu administrazio jarduketan arloan osasun krisiak eragindako beharrak. Horren ondorioz, beharrezkotzat hartzen da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, aldatzea, zergen aplikaziorako prozeduretan jarduketak bideokonferentziaz edo antzeko beste sistema batzuek gauzatu ahal izateko, zergadunen eskubideen erabilpena eta zerga obligazioen betetzea erraztearren.

Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluak 2020ko ekainaren 24ko (UE) 2020/876 Zuzentaraua onartu du, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, Covid-19aren pandemiarengatik zerga informazioa aurkeztu eta trukatzeko epe jakin batzuk geroratzeko premiari aurre egiteko. Zuzentaru horren arabera, estatu kideei aukera ematen zaie neurriak har ditzaten hamazazpigarren eta hemezortzigarren xedapen gehigarrietan (eta Zergen Foru Arau Orokorren bosgarren xedapen iragankorrean) aipatutako bitartekari eta zergadunek xedapen horietan ezarritako informazio obligazioen betetze epeak geroratu ahal izateko.

Aukera horren arabera, eta kontuan hartuta zeintzuk diren alarma egoeraren aurrekariak eta aipatutako bosgarren xedapen iragankorrean jarritako epearen amaiera hurbil dagoela, komenigarritzat hartzen da xedapen iragankor hori zuzentaru berriari jasotakoaren arabera aldatzea.

Halaber, ikusi da koiuntura horretan administrazio jarduerak mantsotu egin dela. Pizgarri fiskala aplikatzeko txostena ez da behar adina azkar prestatzen ari. Horregatik, film luzeen eta ikusentzunezko obren produkzioan jarduten diren enpresen likidezia ez kaltetzeko, zilegi da txostena kenkaria aplikatu ondoren aurkeztea.

Laugarren eta azken neurriak salbuespen bat ezartzen du enplegua babesteko presako neurriei buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-Dekretuaren 2. artikuluko 11. apartatuaren aplikaziotik zuzenean edo zeharka eratortzen diren eragiketa eta egintzetarako. Artikulu horretan funts bat sortzen da enpresa estrategiko ez-finantzarioen kaudimenari laguntzeko, Covid-19aren ondorioz aldi baterako zailtasun larriak dituztenean.

Neurri horiek sartzeko beharrezkoa eta premiazkoa da, erantzun nahi zaielako osasun larrialdiaren eta horrek eragindako zirkunstantzien eta haien efektu negatiboak arintzeko behar horren ondorioz sortutako egoerei.

Neurri horien guztien onarpenak foru arau bidez erregulatu beharreko alderdiei eragiten die eta, haien guztiei ezin zaienez presaz erantzun foru arau bidez onartzeko araugintzako prozedura arruntaren bidez, haren epeek luze jotzen dutelako, bidezkotzat jotzen da foru dekretu-arau baten bidez onartzea, hartu beharreko neurriak berehala aplikatzekoak baitira.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, premiazko eta aparteko arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen horiek foru dekretu- arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu- arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

La tercera de las medidas tiene presente las necesidades generadas por la crisis sanitaria en el ámbito de las actuaciones administrativas. En base a ello, se considera preciso modificar la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para posibilitar la realización de actuaciones a través de videoconferencia u otros sistemas similares en los procedimientos de aplicación de los tributos, a fin de favorecer el ejercicio de derechos y el cumplimiento de las obligaciones tributarias de los contribuyentes.

Por otro lado, el Consejo de la Unión Europea ha aprobado la Directiva (UE) 2020/876 del Consejo de 24 de junio de 2020, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE para hacer frente a la urgente necesidad de diferir determinados plazos para la presentación y el intercambio de información tributaria a causa de la pandemia de Covid-19. En virtud de la misma, se da opción a los Estados miembros de adoptar medidas que permitan a los intermediarios y contribuyentes a los que aluden las disposiciones adicionales decimoséptima y decimoctava, además de en la disposición transitoria quinta de la Norma Foral General Tributaria antes citada, diferir los plazos de cumplimiento de las obligaciones de información contempladas en las mismas.

En virtud de dicha opción, y teniendo en cuenta las circunstancias precedentes de estado de alarma y la proximidad del plazo previsto en la mencionada disposición transitoria quinta, se considera conveniente modificar la misma en los términos habilitados en la nueva Directiva.

Así mismo, se ha observado que en esta coyuntura la actividad administrativa se ha ralentizado. La emisión del Informe para la aplicación del incentivo fiscal no se está realizando con la celeridad debida, es por ello que con el objeto de no perjudicar la liquidez de las empresas dedicadas a la producción de largometrajes y obras audiovisuales, se permite la presentación del informe en un momento posterior a la aplicación de la deducción.

La cuarta y última de las medidas establece una exención que comprende las operaciones y actos derivados directa o indirectamente de la aplicación del apartado 11 del artículo 2 del Real Decreto-ley 25/2020, de 3 de julio, de medidas urgentes para apoyar el empleo, que crea un fondo de apoyo a la solvencia de empresas estratégicas, no financieras, que atraviesan severas dificultades de carácter temporal a consecuencia de la pandemia del Covid-19.

La inclusión de estas medidas se hace necesaria y urgente desde el momento en que responden a situaciones surgidas como consecuencia de la emergencia sanitaria y de las circunstancias provocadas por la misma, así como de la necesidad de paliar sus efectos negativos.

La aprobación de todas estas medidas inciden en aspectos que requieren su regulación por norma foral, y resultando que la respuesta perseguida, de carácter urgente, no puede conseguirse a través del procedimiento normativo ordinario de aprobación de norma foral, debido a lo dilatado de sus plazos, se considera procedente su aprobación mediante un decreto foral-norma, justificado en la inminente aplicación de las medidas a adoptar.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

1. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren aitortpenaren aurkezpena, ekitaldiko urteko kontuak prestatu eta onartzean Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuko 40. eta 41. artikuluetan jasotako xedapenetara egokitzen diren zergadunentzat.

1. Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuko 40. eta 41. artikuluetan jasotakoa aplikatzearen ondorioz zergaldia amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen ondoren beren urteko kontuak onartu dituzten sozietateen gaineko zergaren zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 126. artikulua 1. apartatuan jarritako epean. 2019ko autolikidazioetarako epe hori arautua du 4. artikuluan maiatzaren 27ko 242/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira 2019an hasitako zergaldietarako, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrei eta, atzerrian eratuak izanik eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan presentzia edukita, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagokiena) autolikidatzeko erabiliko diren 200, 220, 20G eta 22G ereduak eta horiek aurkeztu eta ordaintzeko modua, epea eta tokia.

Epe hori amaituta urteko kontuak ez baditu onartu dagokion organoak, autolikidazioa urteko kontu erabilgarriekin prestatuko da.

Horretarako, urteko kontu erabilgarritzat hartuko dira:

a) Sozietate anonimo kotizatuentzat, 8/2020 Errege Lege Dekretuak 41. artikulua 1. apartatuko a) letran aipatutako urteko kontu auditatuak.

b) Gainerako zergadunentzat, berriz, urteko kontu auditatuak edo, horrelakorik ezean, dagokion organoak prestatutako urteko kontuak edo, halakorik ezean, Merkataritza Kodearen arabera edo dagokien arauari jarraituz eramaten den kontabilitate erabilgarria.

2. Baldin eta bat ez badatoz dagokion organoak onartutako urteko kontuen arabera atera behar den zergaren autolikidazioa eta aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aurkeztutako autolikidazioa, zergadunek autolikidazio berri bat aurkeztu behar dute, 2020ko azaroaren 25era arteko epea izango dute horretarako, eta honako hauek hartu beharko dira kontuan, kasuaren arabera:

a) Autolikidazio berria osagarritzat hartuko da, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 117. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, baldin eta ordaintzeko kopuru handiago bat edo itzultzeko kopuru txikiago bat ateratzen bada aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera egindako autolikidaziotik eratortzen dena baino.

Ateratzen den ordaintzeko kopuruak berandutze interesak sortuko ditu, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 26. artikuluan jasotakoaren arabera, betiere maiatzaren 27ko 242/2020 Foru Aginduko 4. artikuluan jarritako epea amaitu eta biharamunetik aurrera, eta ez zaio aplikatuko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 27. artikuluan jasotakoa.

b) Aurreko letran jaso gabe dauden kasuetan, autolikidazio berriak aurkezpen datatik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez zaio aplikatuko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak,

Artículo 1. Presentación de la declaración del impuesto sobre sociedades para los contribuyentes que se ajusten para la formulación y aprobación de las cuentas anuales del ejercicio a lo dispuesto en los artículos 40 y 41 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19.

1. Los contribuyentes del impuesto sobre sociedades que hayan aprobado sus cuentas anuales en un plazo posterior al de los 6 meses siguientes a la finalización del periodo impositivo al que correspondan, como consecuencia de la aplicación de lo dispuesto en los artículos 40 y 41 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19, presentarán la autoliquidación del impuesto en el plazo previsto en el apartado 1 del artículo 126 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, este plazo para las autoliquidaciones correspondientes al ejercicio 2019 se regula en el artículo 4 de la Orden Foral 242/2020, de 27 de mayo, por la que se aprueban los modelos 200, 220, 20G y 22G de presentación de las autoliquidaciones del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes correspondiente a establecimientos permanentes y entidades en régimen de atribución de rentas constituidas en el extranjero con presencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, para los períodos impositivos iniciados en 2019, así como la forma, lugar y plazo de presentación e ingreso.

Si a la finalización de dicho plazo, las cuentas anuales no hubieran sido aprobadas por el órgano correspondiente, la autoliquidación se realizará con las cuentas anuales disponibles.

A estos efectos, se entenderá por cuentas anuales disponibles:

a) Para las sociedades anónimas cotizadas, las cuentas anuales auditadas a que se refiere la letra a) del apartado 1 del artículo 41 del mencionado Real Decreto-ley 8/2020.

b) Para el resto de contribuyentes, las cuentas anuales auditadas o, en su defecto, las cuentas anuales formuladas por el órgano correspondiente, o a falta de estas últimas, la contabilidad disponible llevada de acuerdo con lo previsto en el Código de Comercio o con lo establecido en las normas por las que se rijan.

2. En el caso de que la autoliquidación del impuesto que deba resultar con arreglo a las cuentas anuales aprobadas por el órgano correspondiente difiera de la presentada con arreglo a lo dispuesto en el apartado anterior, los contribuyentes presentarán una nueva autoliquidación con plazo hasta el 25 de noviembre de 2020, a la que resultará de aplicación, según proceda, lo siguiente:

a) La nueva autoliquidación tendrá la consideración de complementaria a los efectos previstos en el artículo 117 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si de ella resultase una cantidad a ingresar superior o una cantidad a devolver inferior a la derivada de la autoliquidación efectuada conforme a lo dispuesto en el apartado anterior.

La cantidad a ingresar resultante devengará intereses de demora conforme a lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, desde el día siguiente a la finalización del plazo previsto en el artículo 4 de la Orden Foral 242/2020, de 27 de mayo, antes citada, sin que le resulte de aplicación lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) En los casos no comprendidos en la letra anterior, la nueva autoliquidación producirá efectos desde su presentación, sin que resulte de aplicación lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 116 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General

116. artikulua 4. apartatua eta apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaz onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketara eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak 72. artikulua eta ondorengoetan jasotakoa; gainera, ez dira mugatuko Administrazioak lehen autolikidazioa edo autolikidazio berria ziurtatzeko edo egiaztatzeke dituen ahalmenak.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuz ateratzen diren kopuruak itzultzen badira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 129. artikulua jasotakoa aplikatuko da. Horretarako, 6 hilabeteko epearen kontaketa aurreko apartatua autolikidazio berria aurkezteko jasotzen den epea amaitzen denetik aurrera hasiko da.

Aurretik jasotakoa jasota ere, aurreko apartatuko b) letran aipatutako zuzenketatik itzultzeko kopuru bat ateratzen denean aurreko autolikidazioan diru sarrera efektibo baten ondorioz, berandutze interesak sortuko dira kopuru horren gainean, maiatzaren 27ko 242/2020 Foru Aginduko 4. artikulua aipatutako borondatezko aitorten epea amaitu eta biharamunetik itzulketaren ordainketa agintzen den arte.

4. Administrazioak ziurtatu eta egiaztatu ahal izango ditu artikulu honetan aipatzen diren eta zergapekoek aurkeztu dituzten autolikidazioak, eta, hala badagokio, bidezkoa den likidazioa egingo du. Partikularki, ez da preklusio ondoriozik sortuko artikulu honetako 2. apartatuaren b) letran aipatutako zuzenketetatik.

2. artikulua. *Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzea.*

Edukia ematen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 41.I.B) artikulua 29. zenbakia, eta honela idatzita gelditzen da:

«29. Luzamenduen formalizazio eskriturak, honako luzamenduak direnean: Covid-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-Dekretuaren 13.3 artikulukoak; Covid-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloko premiazko neurri osagarriei buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-Dekretuaren 24.2 artikulukoak; 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-Dekretuaren 3tik 9ra arteko artikulua; eta Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartutako esparru akordio sektorialen babesean emandako luzamendu konbentzionalak, maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-Dekretuaren 7. artikulua aurreikusitak.»

3. artikulua. *Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, aldatzea.*

Honela aldatzen da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra:

Bat. 10. apartatu berri bat sartzen da 95. artikuluan, eta honela idatzita gelditzen da:

«10. Zergen aplikaziorako prozeduretan Administrazioak eta zergapekoek sistema digitalak erabili ahal izango dituzte beren jardunean. Hain zuzen ere, sistema horiek ahalbidetu behar dute bideokonferentziak edo antzeko sistema batez ikus-entzunezko bi norabideko komunikazio aldiberekoa egotea eta zergapekoek eta organo jarduleak elkar ikustea, entzutea eta hitz egitea, eta, gainera, bermatu behar dute egindako jarduketan emaitza jasotzen duten agiriak segurtasunez bidaltzea eta jasotzea, betiere jarduketara horien egiletza, benetakotasuna eta osotasuna ziurtatuz.

Sistema horiek Zerga Administrazioak hala erabakitzen denean erabiliko dira, eta, horretarako, beharrezkoa izango da zergapekoa haren erabilpenarekin eta proposatutako datarekin eta orduarekin ados egotea.»

Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en los artículos 72 y siguientes del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril, ni se limiten las facultades de la Administración para verificar o comprobar la primera y la nueva autoliquidación.

3. En el caso de devolución de cantidades derivadas de la aplicación de lo dispuesto en este artículo, se aplicará el artículo 129 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa. A estos efectos el plazo de los 6 meses se contará a partir de la finalización del plazo establecido en el apartado anterior para la presentación de la nueva autoliquidación.

No obstante lo anterior, cuando de la rectificación a la que se refiere la letra b) del apartado anterior resulte una cantidad a devolver como consecuencia de un ingreso efectivo en la autoliquidación anterior, se devengarán intereses de demora sobre dicha cantidad desde el día siguiente a la finalización del plazo voluntario de declaración a que se refiere el artículo 4 de la Orden Foral 242/2020, de 27 de mayo, antes citada, hasta la fecha en que se ordene el pago de la devolución.

4. Las autoliquidaciones presentadas por los obligados tributarios a las que se refiere este artículo podrán ser objeto de verificación y comprobación por la Administración, que practicará, en su caso, la liquidación que proceda. En particular, no se derivará ningún efecto preclusivo de las rectificaciones a las que se refiere la letra b) del apartado 2 de este artículo.

Artículo 2. *Modificación del impuesto de transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.*

Se dota de contenido al número 29 del artículo 41.I.B) de la Norma Foral 18/1987, de 30 de diciembre, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en los siguientes términos:

«29. Las escrituras de formalización de las moratorias previstas en: el artículo 13.3 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo, de medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto económico y social del Covid-19; el artículo 24.2 del Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes complementarias en el ámbito social y económico para hacer frente al Covid-19; los artículos 3 a 9 del Real Decreto-Ley 25/2020, de 3 de julio, de 2020; así como para las moratorias convencionales concedidas al amparo de Acuerdos marco sectoriales adoptados como consecuencia de la crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19 previstas en el artículo 7 del Real Decreto-ley 19/2020, de 26 de mayo.»

Artículo 3. *Modificación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

La Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa queda modificada como sigue:

Uno. Se introduce un nuevo apartado 10 en el artículo 95 con la siguiente redacción:

«10. Las actuaciones de la Administración y de los obligados tributarios en los procedimientos de aplicación de los tributos podrán realizarse a través de sistemas digitales que, mediante la videoconferencia u otro sistema similar, permitan la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido, la interacción visual, auditiva y verbal entre los obligados tributarios y el órgano actuante, y garanticen la transmisión y recepción seguras de los documentos que, en su caso, recojan el resultado de las actuaciones realizadas, asegurando su autoría, autenticidad e integridad.

La utilización de estos sistemas se producirá cuando lo determine la Administración tributaria y requerirá la conformidad del obligado tributario en relación con su uso y con la fecha y hora de su desarrollo.»

Bi. e) letra berri bat sartzen da 140. artikulua 1. apartatuan, idazkera hau duena:

«e) Aurreko letretan adierazitako tokietan edo beste leku batean, jarduketa horiek foru arau honetako 95.10 artikuluan jasotako sistema digitalen bidez gauzatzen direnean. Sistema horiek erabiltzeko, beharrezkoa izango da zergapekoa ados egotea.»

Hiru. 2020ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, bosgarren xedapen iragankorra honela idatzita gelditzen da:

«Bosgarren xedapen iragankorra. 2020ko uztailaren 1a baino lehen gauzatu diren mugaz gaidiko mekanismoak aitortzeko obligazioen araubide iragankorra.»

Erregelamenduz ezartzen denaren arabera 2018ko ekainaren 25etik 2020ko ekainaren 30era bitartera aitortzeko beharra sortu zaien mugaz gaidiko mekanismoak gehienez 2021eko otsailaren 28an aitortu beharko dira.»

4. artikulua. Sozietateen gaineke zergan pizgarri fiskala aplikatzeko txostena.

Zergadunek kenkari horiek aplikatu ahal izango dituzte, 2019an amaitu dituztenean Sozietateen gaineke Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak hamabosgarren xedapen gehigarriaren bat eta bi apartatuetan jasotako kenkarietarako eskubidea sortu dezaketen ikusentzunezko obrak, betiere haietan jasotako beharkizun guztiak betetzen badituzte.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, kenkari horiek aplikatu ahal izango dira nahiz eta ez aurkeztu aipatutako xedapen gehigarriaren bost apartatuan aipatutako txostena, betiere azken hori ez bada autolikidazioa aurkezterakoan prestatu.

Artikulu honetan jasotakoaren arabera kenkaria aplikatzen duten zergadunek organo eskudunak prestatu bezain pronto aurkeztu beharko dute txosten hori. Aplikatutako kenkariaren oinarria bat ez badator txostenean jasotakoarekin, zergadunak hura erregularizatu beharko du, gainera.

Xedapen gehigarri lehena. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematea.

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau honetako 3. artikulua hiru apartatuan jarritako epea luzatu dezan (epe hori martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, bosgarren xedapen iragankorrean jasota dago), baldin eta Kontseiluak exekuzio erabaki bat hartzen badu, 2011/16/EB Zuzentarauak 27 ter artikuluan jasotakoari jarraituz, epe horren geroratze aldia luzatzeko (betiere Covid-19aren pandemiarengatik zerga informazioa aurkeztu eta trukatzeko epe jakin batzuk geroratzeko premiari aurre egiteko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duen 2020ko ekainaren 24ko Kontseiluaren 2020/876 Zuzentarauak (EB) emandako idazkeran).

Bigarren xedapen gehigarria. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsa.

Ekonomia suspertu eta enplegua babesteko presako neurri buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-Dekretuaren 2. artikuluko 11. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaie foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu-arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Dos. Se introduce una nueva letra e) en el apartado 1 del artículo 140 con la siguiente redacción:

«e) En los lugares señalados en las letras anteriores o en otro lugar, cuando dichas actuaciones se realicen a través de los sistemas digitales previstos en el artículo 95.10 de esta norma foral. La utilización de dichos sistemas requerirá la conformidad del obligado tributario.»

Tres. Con efectos desde el 1 de julio de 2020 la disposición transitoria quinta queda redactada en los siguientes términos:

«Disposición transitoria quinta. Régimen transitorio de las obligaciones de declaración de los mecanismos transfronterizos sometidos a declaración que se hayan realizado con anterioridad a 1 de julio de 2020.»

Los mecanismos transfronterizos cuyo deber de declaración haya nacido, en los términos reglamentariamente establecidos, entre el 25 de junio de 2018 y el 30 de junio de 2020 deberán ser objeto de declaración a más tardar el 28 de febrero de 2021.»

Artículo 4. Informe para la aplicación del incentivo fiscal en el impuesto sobre sociedades.

Los contribuyentes que en 2019 hayan finalizado obras audiovisuales susceptibles de generar el derecho a las deducciones previstas en los apartados uno y dos de la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, podrán aplicar dichas deducciones siempre que cumplan todos los requisitos previstos en las mismas.

No obstante lo anterior, se podrán aplicar dichas deducciones aun cuando no se aporte el informe a que se refiere el apartado cinco de la citada disposición adicional, siempre y cuando éste no haya sido emitido en el momento de la presentación de la autoliquidación.

Los contribuyentes que apliquen la deducción conforme a lo previsto en este artículo deberán presentar dicho informe ante la Administración tributaria tan pronto como el órgano competente lo emita. En caso de que la base de la deducción aplicada no coincida con la establecida en el informe, el contribuyente procederá, además, a su regularización.

Disposición adicional primera. Autorización al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Se autoriza al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para prorrogar el plazo establecido en el apartado tres del artículo 3 del presente decreto foral-norma, incluido en la disposición transitoria quinta de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el caso de que el Consejo adopte una decisión de ejecución para prorrogar el periodo de diferimiento de dicho plazo, en los términos previstos en el artículo 27 ter de la Directiva 2011/16/UE, en la redacción dada por la Directiva (UE) 2020/876 del Consejo de 24 de junio de 2020, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE para hacer frente a la urgente necesidad de diferir determinados plazos para la presentación y el intercambio de información tributaria a causa de la pandemia de Covid-19.

Disposición adicional segunda. Fondo de apoyo a la solvencia de empresas estratégicas.

Resultará de aplicación lo dispuesto en el apartado 11 del artículo 2 del Real Decreto-ley 25/2020, de 3 de julio, de medidas urgentes para apoyar la reactivación económica y el empleo.

Disposición final primera. Habilitaciones normativas.

Se faculta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

Disposición final segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia, 2020ko uztailaren 21a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia. (3622)

San Sebastián, a 21 de julio de 2020.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Jabier Larrañaga Garmendia. (3622)